



Ebazpena, 2021eko martxoaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, EAeko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituen, hezkidetzaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduketako proiektuak gauzatzeko eskaera egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako. (IE2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna)

Hezkuntza Sailak eskola-eredu mistotik hezkidetzaren eskolaren eredura igarotzeko eraldaketa-prozesua sustatu nahi du, genero-indarkeria eta sexismoan oinarritutako indarkeria-adierazpen oro prebenitzen laguntzeko. Horretarako, "Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana" garatu zuen sailak, aipatutako planak, bigarren plan batean jarraitu zuen: "Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzaren II. Plana, berdintasuna eta tratua lortzeko bidean (2019-2023)". Plan horien helburuetako bat da ikastetxeek beren kulturaren, politikaren eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz.

Emakumeen aurkako indarkeria sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritutako sistema baten ondorio gorena da. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak eraldatzen lagun dezake, dauden identitate-aniztasuna errespetatuko duten eta, mutilen eta nesken, garapen pertsonala ahalbidetuko duten berdintasunezko harremanak bermatzeko beharrezkoak diren aldaketak eginez.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak -Euskal Eskola Publikoari buruzkoak- 3. artikuluko 1. puntuan definitzen duenez, gure eskolak izan behar du aniztasun, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura aldetik ingurunean errotua, partaidetzan oinarritua, desberdintasunak berdintzen dituen eta aniztasuna integratzen duena. Eta xedeen artean, hauxe ezartzen du: «*ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea*».

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- helburu hori zabalitzen du eta horretan sakontzen du; hala, 28. artikuluan hezkuntza-sistema premiatzen du hezkidetzaren eredua bat gara dezan. Zehazki, honako hau adierazten du:

«Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrenean.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- 29. artikuluan ezartzen duenez, Hezkuntza Administrazioak hezkidetzaren proiektuak sustatuko ditu, eta hezkidetzaren helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean.

COVID-19k eragindako osasun-krisiak ikastetxeen funtzionamendu normala nahastu du, eta, bereziki, eragin handia izan zuen ikastetxeek aurreko ikasturteetan aurreikusitako proiektuak eta programak betetzean. Beraz, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetako



plangintzak kontuan hartu behar du programatutako jarduerak irakaskuntza ez-presentzialera egokitzea.

1- Deialdiaren xedea

Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten 50 ikastetxe publiko hautatzea, hezkidetzaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta detekzio goiztiarraren esparruan jarduera-proiektu bat diseina dezaten. 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteak barne hartuko dituen, eta hezkidetzaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu orokor, sistematiko eta integratuan lantzeko aukera emango diena.

2- Banaketa: mailak eta lurraldeak

- 1- Proiektuak aukeratuko dira lurraldeen eta mailen arabera, taula honetan ezarritakoari jarraituz. Hamaika Esku programan edo deialdi honetan lehengo aldiz parte hartzen duten ikastetxeei lehentasuna emango zaie.

Lurraldea	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Guztira
Araba	5	3	8
Bizkaia	15	10	25
Gipuzkoa	10	7	17
Guztira	30	20	50

- 2- Hala ere, plaza soberakina izanez gero, beste lurraldeetan etapa berari esleitutako plazen kopurua handituko da. Halaber, plaza gehiegi badaude oraindik, baimena ematen da lurralde bakoitzaren barruan etapakako banaketa aldatzeko. Kopurua erantsiko zaio gainerako lurraldeetako maila bereko plazen kopuruari.
- 3- Ikastetxe osoari eragiten dioten proiektuak aurkezten dituzten ikastetxe publiko integratuak (IPI) bereizitzat hartuko dira lotutako baliabideen zuzkidurari dagokionez.

3- Betekizunak

Aurreko deialdietan parte hartu duten ikastetxeek berriz ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta parte hartu zuten deialdiko ikastaroen epea bukatu bazaie. Hau da, deialdi honetatik kanpo geratuko dira 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako jarduera-proiektuak diruz laguntzen dituen deialdian hautatuak izan diren ikastetxeak. Parte-hartze hori gehienez hiru deialditara zabaldu ahal izango da, deialdi hau 2013-2014 ikasturtean hasi zenetik zenbatzen hasita.

- 1.- Hautapen-prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete behar ditu eskabideak:
 - a) Ikastetxeko lanpostuen zerrendako irakasleen % 70ek parte hartzeko konpromisoa.
 - b) OOGk proiektua onetsi izana.
 - c) Ikastetxeko OOGren erabaki hau jasotzea: proiektua aukeratuz gero, Ikastetxearen Urteko Planean eta ondoren egingo den urteko memorian sartuko da.



- d) Ikastetxeko **hezkidetzako arduraduna** identifikatu behar da. Hark horretarako baldintza egokiak bete beharko ditu: langile finkoa, ikastetxea ondo ezagutzen duena, sentsibilizatuta dagoena, eta prozesua dinamizatzeko, koordinatzeko eta buru izateko gaitasunak dituena. Arduradunari emango zaio proiektuari dagokion ordu-kreditua. Pertsona horri ordu-kreditua esleituko zaio, eta eginkizun hauek beteko ditu:
- a. Ikastetxearen proiektua bultzatzea eta koordinatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta goiz detektatzeko lana egingo duen hezkidetz eskola baterantz joateko.
 - b. Proiektuan planteatutako ekintza bateratu eta sistematikoak kudeatzea eta dinamizatzea, "Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetz II. Planean, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean (2019-2023)" jasotako hezkidetzaren zutabe nagusiak barne hartuta".
 - c. Koordinaziorako eta batera-lanerako uneak, aktak, saioen edukia ... ezartzea.
 - d. Eskola mistoa hezkidetz eskola bihurtzeko behar den prestakuntza pedagogikoa koordinatzea.
- e) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenean (OOG) **berdintasun-ordezkaria** izendatu izana.
- f) Hezkidetzako arduraduna BAT Taldean sartuta dagoela bermatzea.
- g) Ikastetxeetako bizikidetz behatokian ikastetxeak garatzen duen hezkidetz lanari lotutako eginkizunak sartzea.
- h) Genero-ikuspegia txertatzea Tutoretza eta Orientazio Planetan, hezkidetzaren zutabeetan oinarrituta, "Euskal Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetz Planaren esparruan, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean" emango diren materialen bidez.
- i) Ikastetxeko hezkidetz plana egitea edo, balego, berritzea.
- j) Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza genero-ikuspegiarekin egiten dela sustatzea.

2.- Jarduera-proiektu bat aurkeztea 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako.

4 - Esleipena

1. Hautatzen diren ikastetxeei **irakasle erdi baten lanaldiari dagokion ordu-kreditua** esleituko zaie. Lanaldi hori proiektuak iraungo dituen bi ikasturteetatik lehenengoan baliatuko da. Ikastetxeak konpromisoa hartu beharko du proiektuaren arduradunari hurrengo ikasturtean behar duen denbora emateko koordinazio- eta plangintza-lanak egin eta Berritzegunera joateko aukera izan dezan.

Administrazioari gutxi gora behera **1.212.500,00** euroko kostua eragingo dio ordu-kreditu horrek.



2. Emakunderen hainbat programatan parte hartzeko aukera eskainiko zaie ikastetxeei: Nahiko programa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeentzat, eta Beldur Barik programa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat. Denek 10 orduko prestakuntza izango dute, bi saiotan banatuta (prestakuntza horretara hezkidetzako arduradunak joan ahal izango dira), eta ikasturtean zehar hiru jardunalditan parte hartu ahal izango dute. Era berean, programa horietako material didaktiko guztiak izango dituzte eskura.
3. Hautatutako ikastetxeetako hezkidetzako arduradunek **eskualde-mintegietan** parte hartu eta eskualdeko Berritzegunearen zuzeneko aholkularitza jasoko dute prozesu osoan zehar.

5 - Eskabidea eta dokumentazioa

1. Eskabideak izan behar du I. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera, honako hauek barnean hartuta:
 - i. Ikastetxearen zuzendariaren ziurtagiria: ez dutela lehenago parte hartu antzeko deialdietan, irakasleen % 70 edo gehiagok proiektua garatzeko prozesuan parte hartuko dutela adierazten duena, eta arduradunak identifikatzen dituena (hezkidetzako arduraduna, OOGko berdintasun-ordezkaria).
 - ii. Klaustroaren akta; bertan berariaz adieraziko da klaustroak ezagutzen duela aipatutako proiektua, eta bere gain hartzen dituela proiektuak ikastetxearen barne-antolakuntzan izan ditzakeen ondorioak, bai eta deialdiaren konpromiso eta betekizun guztiak ere.
 - iii. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren ziurtagiria, eskabidearekin ados dagoela adierazten duena, eta deialdi honen esparruan egingo den lanaren ildotik sortuko den proiektua abian jartzeko eta Ikastetxearen Urteko Planean eta urteko memorian sartzeko konpromisoa hartzen duena.
2. Proiektuaren sintesia (II. eranskina), honako eduki hauek kontuan hartuta:
 - i. Justifikazioa.
 - ii. Helburu orokorrak eta helburu espezifikoak (bi ikasturteetarako).
 - iii. Lehenengo ikasturteko helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, haien arduradunak, denborak, ebaluazio-adierazleak eta bigarren ikasturterako jardueren aurreikuspena zehaztuta.
 - iv. Ebaluazioa.

6.- Proiektua egiteko jarraibideak

1. Proiektu honek "Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzako II. Planean, berdintasuna eta tratua lortzeko bidean (2019-2023)" jasotako hezkidetzaren zutabe nagusiak barne hartzen dituzten ekintza bateratu eta sistematikoak egiten lagundu behar du,



emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartuko dion hezkidetza-eskola baterantz abiatzeko. Proiektuak deskribatuko du ikastetxeak datozen 2 ikasturteetarako egiten duen proposamena. Proiektu honek lagundu egin behar du ikastetxeak egiten dituen jarduerak antolatzen, bai eta abian jarri nahi dituen jarduerak ere.

2. **Justifikazioan** adieraziko dira ikastetxeak dituen arrazoiak hezkidetza, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eta detekzio goiztiarra lantzeko, arlo horretan ikastetxeak egindako ibilbidea, eta zer-nolako premiei erantzun nahi dien.
3. Premia horiek zehatz daitezke, ikastetxeak baliatzen duen informazioa oinarri hartuta (bizikidetzaren behatokia, aniztasunari arreta emateko plana, tutore-ekintza, familien eskaerak...) eta/edo berariaz egindako diagnostikoa abiapuntutzat hartuta. Hala ere, zenbait kasutan, landuko diren eremuei buruzko diagnostiko sakonagoa izan daiteke, hain zuzen, hurrengo ikasturterako edo ikasturteetarako planteatutako jardueretako bat.
4. Garrantzikoa da justifikatzea zergatik ematen zaien lehentasuna gai batzuei, beste batzuen aurretik, eta zer antolaketa behar den proiektua aurrera ateratzeko
5. Proiektuak definituko ditu bi ikasturteen amaierarako lortu nahi diren **helburu orokorrak**. Helburu orokor bakoitza zehaztuko da **helburu espezifiko** batzuetan.
6. Helburu espezifiko horietako bakoitza lantzeko jarduerak proposatuko dira. Kasu honetan, lehenengo ikasturteko jarduerak eta haien arduradunak, denborak eta ebaluazio-adierazleak zehazteko soilik eskatzen da, eta bigarren ikasturtekoak aurreikusteko.
7. **Ebaluazioa** izango da, hain zuzen, bi ikasturteetan egingo den **prozesua**, proiektuan aldaketak egin behar ote diren jakitea bideratuko duena. Horretarako kontuan hartuko dira jarduketako bakoitzaren ebaluazio-adierazleak.

7- Aurkezteko epea eta tokia

- 1- Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021eko martxoaren 30ean amaituko da, egun hori barne.
- 2- Eskaerak elektronikoki bidaliko dira, dagozkien eranskinekin batera, ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>).
- 3- Eskaera, eranskinak eta gainerako inprimaki normalizatuak ikastetxe publikoentzako atarian "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>) argitaratuko dira.
- 4- Atari horretan deialdi honen fitxa argitaratuko da, bai eta deialdiarekin lotutako azken berriak ere. Fitxa horretan eskaera egiteko eskuliburuak eta jarraibideak egongo dira ikastetxe eskatzaileen eskura.

8- Hautaketa-batzordea



- 1) Eskakerak barematuko ditu hautaketa-batzordeak, eta hautatutako ikastetxeen zerrendak egingo ditu. Batzorde horretan honako kide hauek parte hartuko dute:
 - a) Hezkuntza-Berriztapen zerbitzuko burua, edo hark izendatzen duena, batzordeburu izango da.
 - b) Hezkuntza-Berriztapeneko lurralde-arduradunak, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak.
 - c) Eskola inklusiboko Berritzegune Nagusiko arduraduna (aniztasuna/generoa).
 - d) Hezkuntza-Berriztapen zerbitzuko pertsona bat, idazkari-lanetan jardungo dena.
- 2) Hautapen-batzordeak ikastetxeak aukeratuko ditu, eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari igorriko dio ebazpen-proposamena.

9.- Ebazpena

1.- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak, Hautaketa Batzordeak helarazitako proposamenak aztertu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko epean emango du ebazpena, eta aurkeztutako proiektuak hautatuak izan diren ala ez zehaztuko du ebazpen horren bidez. Ebazpen hori bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie eskabidea egin duten ikastetxeei.

2.- Ikastetxe interesdunek hamar eguneko epea izango dute, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko ditu. Erreklamazioak ikastetxe publikoentzako atariaren bidez aurkeztuko dira: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>).

3.- Aurreko paragrafoan aditzera ematen den gehienezko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsi egin zaiela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua ondu ondoren.

10- Balioesteko eta esleitzeko irizpideak (hautaketa)

1. Hautapen-batzordeak zenbatetsiko ditu aurkeztutako eskaerak Berritzeguneko aholkularien laguntzarekin.
2. Balioespen-irizpideak

Aurkeztutako proiektuari **10 puntu** emango zaizkio, gehienez, eta onespena lortzeko 6 puntu beharko ditu, gutxienez.

- I. Ikastetxearen ibilbidea eta premien definizioa (**2,5 puntu, gehienez**). Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Ikastetxearen ibilbidea jarduketak, programak, proiektuak, prestakuntza eta abar sustatzeari dagokionez, honako arlo hauek aintzat hartuta: hezkidetzak,



emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra, sexu-aniztasuna, harreman afektibo eta sexualak (0,75 puntu, gehienez).

- b) Premien definizioa (0,75 puntu, gehienez).
- c) Lehentasunen aukeraketa eta argudioak (1 puntu, gehienez).

II. Helburu orokorrak eta helburu espezifikoak (1,25 puntu, gehienez).

III. Jarduketak (4,25 puntu, gehienez). Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Ikasleei eta irakasleei zuzendutako jarduerak, hezkidetzaren zutabe nagusiekin bat etorritik (1,50 puntu gehienez):

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa.
4. Gatazken konponketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
7. Hezkuntza afektiboa eta sexuala berdintasunean
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea.

b) Proiektuetan (IHP, ICP, AJA, aniztasunari emandako erantzuna, bizikidetzak, etab.), dokumentuetan (jakinarazpenak, matrikulazioak, aktak ...) eta ikastetxeko komunikazio-sistemetan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra ezartzera bideratutako jarduerak (puntu 1, gehienez)

c) Klaustro guztiaren prestakuntza (0,75 puntu, gehienez).

d) Familien prestakuntza eta parte hartzea (0,75 puntu).

e) Eragile soziokomunitarioen prestakuntza eta parte-hartzea (0,25 puntu, gehienez).

IV. Proiektua zenbateraino egokitzen zaion planari :“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” eta hezkuntza-komunitatearen inplikazioa plan hori egiteko prozesuan (1 puntu, gehienez).



V. Ebaluazioa (1 puntu, gehienez).

3. Esleipena

Esleipena bigarren puntuaren –banaketa-irizpideak– eta lortutako puntuazioaren arabera egingo da. 10.2 puntu jasotzen den puntuazio minimoa lortuta, baina deialdi honetan esleitzen diren 50 plazaetako bat lortu ez duten ikastetxeekin ordezkapen zerrenda bat osatuko da. Aukeratua izan den ikastetxeren batek bere plazari uko egin ezker, zerrenda honetako beste ikastetxe batek hartuko du honen lekua lortutako puntuazioaren arabera eta bigarren puntua –banaketa-irizpideak– kontuan hartuta.

11 – Ikastetxeen betebeharrak

1. Jarduera-plan bat aurkeztea, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako hezkidetzak eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra lantzeko.
2. Ikasturtero lan-plan bat eta horri dagokion memoria egin beharko ditu. Dokumentuok ikastetxearen urteko planaren eta urteko memoriaren zati izango dira, hurrenez hurren.
3. Ikastetxeko hezkidetzako arduradunari zonako mintegira eta sailak antolatzen dituen prestakuntza-jardueretara joateko aukera ematea.
4. Hezkidetzako arduradunak Berritzeguneen eskualde-mintegietan parte hartuko du. Horietan, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeak elkartu eta koordinatuko dira, eta aholkuak jasoko dituzte.
5. Programa honen esparruan landutako materialak Berritzeguneen esku jarriko dira, hezkuntza-komunitateko gainerakoekin partekatuzko.

12.- Memoria – Justifikazioa

Deialdi honetan sartzen diren ikasturte bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen, "Hezkidetzak – Jarduketa-proiektuak– Justifikazioa-Memoria" dokumentua aurkeztuko da (III. eranskina, Excel formatuan), behar bezala beteta, ikastetxe publikoei zuzendutako atariaren bitartez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>).

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 1ean



Begoña Pedrosa Lobato
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



I. ERANSKINA / ANEXO: HEZKIDETZA: JARDUKETA-PLANAK / COEDUCACIÓN: PROYECTOS DE ACTUACIÓN

Kodea/Código

Ikastetxea/Centro

Udalerría/Municipio

_____ jauna/andrea
 NAN: _____, ikastetxeko Ordezkaritza Organo
 Goreneko zuzendari eta lehendakari gisa.

Don/Doña _____
 con DNI _____ en calidad de director/a y
 presidente/a del Órgano Máximo de Representación del
 centro

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dut Hezkuntza sailburuordearen Ebazpena, EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituena, hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra lantzeko jarduketa-proiektuak gauzatzeko eskaera egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako. (IE2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna)

EXPONE:

Que, conociendo los términos de la Resolución de la Viceconsejera de Educación por la que se aprueban las instrucciones dirigidas a los centros públicos de Educación Primaria y Educación Secundaria de la CAPV, para la petición de solicitud de realización de proyectos de actuación, que les permita abordar la coeducación la prevención y detección precoz de la violencia contra las mujeres, para los cursos 2021-2022 y 2022-2023. (L2. Educación Inclusiva y Atención a la Diversidad)

ZERA ZIURTATZEN DU:

1) Klaustroak _____ egunean egindako bileran adierazitakoaren arabera, ikastetxeko lanpostuen zerrendako langileen % 70ek, gutxienez, esku-hartze planaren garapenean parte hartzearen alde bozkatu dute. Halaber, irakasle guztiek ezagutzen dute aurkeztutako dokumentazioa, eta beren gain hartzen dituzte horrek ikastetxearen barneko antolakuntzan izan ditzakeen ondorioak, bai eta esku-hartzeko plana, prestakuntza, jarraipena eta ebaluazioa egitearekin lotutako konpromiso guztiak ere.

CERTIFICA QUE:

1) El Claustro en sesión celebrada el día _____ manifiesta que al menos el 70% del profesorado de la RPT del centro ha votado a favor de participar en el desarrollo del proyecto, que todo el profesorado conoce la documentación presentada y que asume las repercusiones que la misma pueda tener en la organización interna del centro, así como los compromisos referidos a la realización del plan de intervención, a la formación y al seguimiento y evaluación.

2) Ordezkaritza-organo gorena ados dago parte hartzeko eskaerarekin, eta konpromisoa hartu du deialdi honen esparruan garatuko den proiektua ezartzeko eta ikastetxearen urteko planetan eta urteko memorietan sartzeko.

2) El Órgano Máximo de Representación da su conformidad a la solicitud de participación, adoptando el compromiso de implementar el proyecto que se desarrolle en el marco de esta convocatoria y de incluirlo en los Planes anuales y en las memorias anuales del centro.

3) COVID-19k sortutako egoera dela eta, zaila baita aurrez aurreko bilerak egitea. Beraz, onarpen hori lehendakariaren sinadurarekin egin ahal izango da, Kontseiluaren gainerako kideek informazioa jaso dutela eta adostasuna eman duela egiaztatuta.

3) Dada la situación generada por el COVID-19, que dificulta la realización de reuniones presenciales, esta aprobación se podrá realizar con la firma del presidente/a, acreditando que el resto de la composición del Consejo ha sido informado y da su conformidad.

4) Nahasitako pertsonak

4) Personas implicadas

Eskola Kontseiluko berdintasun-ordezkaría	Representante de igualdad en el Consejo Escolar
Ikastetxeko hezkidetza-arduraduna	Responsable de coeducación del centro

_____, 2021eko _____ ren _____ (a).
 En _____, a _____ de _____ de 2021

ZUZENDARIA (sinadura eta zigilua) / LA DIRECTORA/ EL DIRECTOR (firma y sello)



HEZKIDETZA: JARDUKETA-PLANAK / COEDUCACIÓN : PROYECTOS DE ACTUACIÓN II. ERANSKINA / ANEXO II

Proiektuaren laburpena

Ikastetxea / Centro:

Kodea / Código:

Justifikazioa / Justificación:

--

Helburu orokorrak, eta helburu orokor bakoitzari lotutako helburu espezifikoak (2021-2023 epealdia) / Objetivos generales y objetivos específicos relacionados con cada objetivo general (cursos 2021-2023):

Ikasturteak	Helburu orokorrak / Objetivos generales	Helburu espezifikoak/ Objetivos específicos
2021-2023		

2021-2022 ikasturterako helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, arduraduna, denborak, eta jarraipen- eta lorpen-adierazleak eta 2022-2023 ikasturterako aurreikuspena. / Actuaciones ligadas a cada objetivo específico, Helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, 2021-2022 ikasturterako arduraduna, denborak, eta jarraipen- eta lorpen-adierazleak eta 2022-2023 ikasturterako aurreikuspena.

Ikasturteak	Helburu espezifikoak/ Objetivos específicos	Jarduerak / Actuaciones	Arduraduna / Responsable	Denborak,/Temporalización	Jarraipen- eta lorpen-adierazleak /Indicadores de seguimiento y logro
2021-2022					
2022-2023					

Ebaluazioa / Evaluación:

--



Anexo III: COEDUCACIÓN-PROYECTOS DE ACTUACIÓN-JUSTIFICACIÓN-MEMORIA / HEZKIDETZA-OSOKO JARDUKETA PLANA-JUSTIFIKAZIOA-MEMORIA

PROIEKTUEN DEIALDIAK - PROIEKTUEN JARRAIPENA HEZKIDETZA ETA GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOA

III ERANSKINA - IKASTETXEAREN BALORAZIOA

IKASTETXEKO DATUAK

Ikastetxearen izena					
Ikastetxearen kodea		Udalerrria: _____			
Eredua/k	<input type="checkbox"/> A	<input type="checkbox"/> B	<input type="checkbox"/> D	<input type="checkbox"/> H	
Maila/k	<input type="checkbox"/> HH	<input type="checkbox"/> LH	<input type="checkbox"/> BH	<input type="checkbox"/> BATX.	<input type="checkbox"/> Helduen Hezk.
Irakasle kopurua				Ikasle kopurua	Gela kopurua
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira		

EZAUGARRI OROKORAK

Titulua: _____					
Proiektua ezartzen den hezkuntza etapa/k <input type="checkbox"/> HH <input type="checkbox"/> LH <input type="checkbox"/> BH <input type="checkbox"/> BH					
Parte hartzen duten ikastaldeak					
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira
Proiektuan parte-hartzen duten irakasleak					
Emak.	Giz.	Besteak	Guztira		
			0		
Koordinazio-bilerak antolatuta dira ikastetxean proiektua garatzeko?				<input type="checkbox"/>	Maiztasuna <input type="text"/>

PROIEKTUAREN GARAPENA

Jarduera-kopurua						Proiektuan parte-hartzen duten ikasleak				Nombramiento responsables de coeducación		
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira	Neskak	Mutilak	Beste	Guztira	<input type="checkbox"/> Koordinatzailea		
										<input type="checkbox"/> OMR		
										<input type="checkbox"/> Batzardea		
Ordu-kredituaren erabilera										Zein urtetan dago proiektua? <input type="text"/>		
Koordinazioa	Material-lantzea	Prestakuntza	Besteak	Guztira								

Actuaciones dirigidas al alumnado

- Pentsamendu kritikoa sexismoren aurrean
- Hizkeraren eta irudien erabilera sexista ekiditea
- Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen soziala eta historikoa txertatzea
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea bizikidetzarako proiektuen bidez
- Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa
- Ikastetxeko espazioak eta jarduera osagarriak
- Berdintasunean oinarritutako hezkuntza afektibo-sexuala
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea eta esku-hartzea



LANDUTAKO MATERIAL DIGITALAK

Lantutako material digitalak (kopurua)

Titulua	

BURUTUTAKO PRESTAKUNTZA

Garatutako prestakuntza-jarduerak (kopurua)

1	Titulua				
	Emaleak				
	Balorazioa				
	Iraupena (o)		Tokia		
	Aurrekontua				
	Parte-hartzailea	Emak.	Gizonak	Besteak	Guztira
	Irakasle parte-hartzailea				
	Familia parte-hartzailea				
	Irakasleak ez diren langile parte-hartzailea				

2	Titulua				
	Emaleak				
	Balorazioa				
	Iraupena (o)		Tokia		
	Aurrekontua				
	Parte-hartzailea	Emak.	Gizonak	Besteak	Guztira
	Irakasle parte-hartzailea				
	Familia parte-hartzailea				
	Irakasleak ez diren langile parte-hartzailea				

PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Proiektuaren baitako helburu edota ekintzen betetze maila	
Praktikak klaustroan partekatu dira	

Proiektuaren alderdi esanguratsuak

--

Proiektuak hezkuntza-komunitatean izan duen inplikazioa deskribatu

--

Nolako jarraipena izango du proiektuak datorren ikasturtean

--

Memoriaren dokumentazio osagarria igo (aukerakoa)